



ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA

elikadurako eta Landa Garapeneko
Sailburuordetza
elikagaien Kalitate eta Sustapeneko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

2025eko deialdiaren aldaketak – Kalitate-araubideetarako dirulaguntzak

Izapidetzeko modua: Euskal Autonomia Erkidegoan 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa ezarri eta landa-eremuen ezaugarriak zehazten dituen maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuaren 11. artikulua araberako, agintari eskudunen aurrean jarraitutako administrazio-prozedura guztietan, Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzen onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoek edo nortasun juridikorik gabeko erakundeek, bai eta dagozkien erregistroetan eta lotutako enpresetan inskribatuta dauden nekazaritza-ustategien titularrek ere, administrazioarekiko harremana bitarteko **elektronikoen bidez soilik** izan beharko dute. Beraz, eskabide guztiak elektronikoki izapidetu beharko dira.

7131 eta 7132 esku-hartzeetan Cava BJD ere barruan sartzen da.

Eusko Jaurlaritzan arlo horretan eskumena duen sailaren izena aldatu da, eta aurrerantzean Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila izango da, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren arabera. Dekretu horren arabera, laguntza horren kudeaketa Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumena da.

7131 neurrian eta 3.1 neurrian dirulaguntza-eskaera aldatzeko eta penalizazioen atala gehitu ditugu.

7132 esku-hartzeari buruzko ebazpenean, lortutako puntuen kopurua eta laguntzaren intentsitate-ehunekoa adieraziko dira. Gainera, ebazpenarekin batera, txosten teknikoaren kopia bidaliko dugu.

7132 esku-hartzearen onuradunek justifikazioan adierazi beharko dituzte beren jarduerak garatzeagatik zuzenean lortutako diru-sarrerak, eta ez soilik dirulaguntzak, kontzeptu guztien artean jardueraren % 100 gainditzen ez dela egiaztatzeko.

2015-2022 LGPren 3.1 neurria – 2021 eta 2022 artean izena eman zuten eta bi deialdi horietako batean laguntzak jaso zituzten operadoreentzat. Minimis araubideko laguntzak dira, eta ezin dira 25.000 eurotik gorakoak izan kontzeptu horretan azken 3 ekitaldi fiskaletan (2023-2024-2025).

Lekuan bertan egin beharreko kontrolei buruzko testua sinplifikatu da.

Autonomiaz gaindiko kalitate-erregimenean kasuan, beste erakunde ordaintzaile batzuei kontuan hartutako ekoizpen-ehunekoa jakinarazteko betekizuna.

Lehenesteko irizpideak aldatzea. Horretarako, Kudeaketa Agintaritzak izapidetzen ari den HAPBko fitxa aldatu beharko da. Hona hemen aldaketak:



a) Produktu-gama bat edo gehiago dituzten kalitate-erregimenak sustatzeko jarduketak. 20 puntu gama bakarrerako, eta 50 puntu 5 gama-produktu baino gehiagoko erregimenetarako.

b) Kalitate-araubidearen jarduera-eremua (operadoreak dituzten lurralde historikoen kopurua). Lurralde historiko bakoitzak 5 puntu emango ditu.

c) Lanean hasi diren gazteen kopurua. Diruz lagundu beharreko sustapen-jarduerak aurkezten dituzten kalitate-araubideetara azken 5 urteetan joan diren gazteak. 0 eta 40 puntu artean (40 puntu: 10 gazte edo gehiago sartu dituzten araubideak). Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: izen-abizenak, NAN/IFZ eta inskripzio-urtea.

d) Kalitate-araubidean izena emanda eta EAEn alta-egoeran dauden pertsonen kopurua, agindu arautzailea argitaratzen den egunean. 10 puntu (100 operadore baino gutxiago) eta 40 puntu artean (600 operadore edo gehiago).

e) Euskara hutsez garatutako sustapen-jarduerak edo euskaraz egindako argitalpen, irrati edo telebistako publizitate-kanpainak abian jartzea (10 puntu).

f) Diruz lagundu daitekeen beste kalitate-araubide bat kudeatzen duen ekoizle-talde batekin batera jarduerak garatzea (5 puntu).

g) Laguntzen eskatzailea, gainera, diruz lagundu daitekeen kalitate-figura kudeatzen duen erakundea da (50 puntu).

2. – Puntu berdinetan, alta egoeran operadore kopuru handiena duten kalitate-programen espedienteak lehenetsiko dira.



**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

elikadurako eta Landa Garapeneko
Sailburuordetza
elikagaien Kalitate eta Sustapeneko
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

Egungo eta aurreko egoeren arteko konparazioa

Onuraduna	Urtea	Gamak	LLHH	Gazteak	Balio ekonomikoa (2024)	Operadore kopurua kalitate- arabidean eta EAEn (2025)	Euskara	Lankidetzta	Kalitate- erregimenaren kudeaketa (2025)	Puntuak guztira (2024)	Laguntzaren intentsitatearen % (2024)	Puntuak guztira (2025)	Laguntzaren intentsitatearen % (2025)
1	2024	32	9	40	25	---	10	5	---	121	70	---	---
	2025	32	15	40	---	25	10	5	0	---	---	127	67,7
2	2024	20	9	40	25	---	10	0	---	104	68,16	---	---
	2025	20	15	40	---	15	10	0	0	---	---	100	65
3	2024	26	9	40	25	---	10	5	---	115	68,74	---	---
	2025	26	15	40	---	30	10	5	50	---	---	176	70
4	2024	50	3	20	30	---	10	5	---	118	68,89	---	---
	2025	50	5	20	---	10	10	5	50	---	---	150	70
5	2024	20	9	40	20	---	10	5	---	104	68,16	---	---
	2025	20	15	40	---	20	10	5	50	---	---	160	70
6	2024	44	3	36	25	---	10	5	---	123	70	---	---
	2025	44	5	36	---	15	10	5	50	---	---	165	70
7	2024	50	9	40	30	---	10	5	---	144	70	---	---
	2025	50	15	40	---	40	10	5	50	---	---	210	70